


INGURUMEN KOIUNTURA EUSKADI 2025



© Ihobe, 2026ko martxo

Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila
Eusko Jurlaritz

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua
48011 Bilbo
Tel.: 944 23 07 43

www.ihobe.eus
www.euskadi.eus



| | |
|---------------------------------------|----|
| Aurkezpena | 4 |
| Klima aldaketa | 5 |
| Ura | 6 |
| Airea | 7 |
| Lurzoruak | 8 |
| Biodibertsitatea | 9 |
| Ekonomia zirkularra | 10 |
| Hondakinak | 11 |
| Ekonomia eta ingurumena | 12 |
| Herritarrak eta ingurumena | 13 |
| Ondorioak | 14 |
| 2025eko ingurumen koiunturaren gakoak | 15 |
| Adierazleen laburpena | 16 |

Euskadiko Ingurumen Koiunturari buruzko 2026ko Txostena Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen 13. artikuluan ezarritako manuari lotzen zaio. Izan ere, legerian ezartzen da urtero ingurumenaren egoeraren koiunturari buruzko txosten bat egin behar dela, lau urtean behin egiturazko txosten batez osatuta. Argitalpen honek, beraz, helburu bikoitza du: ingurumen-bektore nagusien azken aldiko bilakaeraren berri ematea eta lurraldearen ingurumen-koiunturaren ezaugarri diren joera garrantzitsuenen irakurketa sintetiko eta ulergarria erraztea.

Egitura-txostenek ez bezala, dokumentu honek batez ere ikuspegi koiunturala jorratzen du, betiere oinarritu hartuz funtsezko adierazleen multzo baten azken aldiko bilakaeran eta, adierazle horiek daudenean, Euskadirako zehaztutako ingurumen-helburuekiko distantzian. Helburua da ingurumenaren egoeraren irudi argia eta eguneratua ematea, zehatz-mehatz erakutsiz zer gertatzen ari den eremu bakoitzean, non gertatzen diren aurrerapenak eta non irauten duten erronkek, eta egungo ibilbidea zein neurritan hurbiltzen den edo urruntzen den ezarritako helburuetatik.

2025eko edizioak txostenaren lehen edizioan hasitako ikuspegia sendotzen du, ingurumen-gai handietan oinarritutako egiturari eutsiz, beti ere Europako Ingurumen Agentziak definitutako bektoreekin lerrotatuta eta EAEko testuinguru sozioekonomikora egokituta.

Ihobek, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-arloko sozietate publikoak, koordinatu du txostena; izan ere, lhoberen eginkizunen artean dago Euskadiko ingurumenaren bilakaeraren aurrerapen eta erronka garrantzitsuenen berri ematea gizarteari, modu erraz eta ulergarrian.

Erabilitako adierazleak batez ere Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten estatistika ofizialetatik datoz, baita Europako erreferentzia iturrietatik ere, txostena prestatzeko unean eskuragarri zeuden datu berrienak barne hartuta.

Oro har, Euskadiko Ingurumen Koiunturari buruzko 2025eko Txostenak lurraldearen ingurumen-bilakaeraren irakurketa sintetiko eta eguneratua eskaintzen du, epe labur eta ertainean trantsizio energetikoaren, ingurumenekoaren eta industrialaren agendak markatuko dituen aurrerapenak, tentsioak eta erronkak azpimarratuz.


Informazio guztia esteka honetan dago eskuragarri:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ingurumena>

Euskadi deskarbonizazioa bizkortzen ari da: emisioak % 38 jaitsi dira eta 2030eko helburura hurbiltzen ari dira

Otsailaren 8ko 1/2024 Legeak, Euskadiko Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzkoak, 2050erako klima-neutraltasuna lortzeko eta lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia handitzeko helburuak ezartzen ditu, trantsizio justu baten bidez. Tarteko helburu bat ere jasotzen du: berotegi-efektuko

gasen (BEG) isurpenak % 45 murriztea 2005eko mailekin alderatuta 2030erako. 2024ko datuek erakusten dute Euskadik 15,8 milioi tona BEG isuri zituela, hau da, oinarri-urtearekin alderatuta % 38ko murrizketa, eta berresten du lurraldeak bide onetik jarraitzen duela legeriak ezarritako helburu hori lortzeko.

Berotegi-efektuko gasen isuri osoen indizea 2005-2024



Helburua


TRANSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN LEGEA 2030:

% 45 murriztea

2005-2024 aldian, energia berriztagarrien kuota goranzko joera argia erakutsi du energiaren azken kontsumoan. Joan den hamarkadaren erdialdean ikusitako geldialdiaren ondoren, 2018tik hazkunde iraunkorreko bide bat finkatu da, eta 2024an azken kontsumoaren % 21,3ra iritsi da. Aurrerapen hori, batez ere, bioerregaien

hazkundeak eta eguzki energiaren, aerotermiaren eta geotermiaren garapenak azaltzen dute. Hala ere, lortutako balioak agerian uzten du beharrezkoa izango dela ahaleginari eustea Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legeak 2030erako ezarritako % 32ko gutxienerako helburua betetzeko.

Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoan 2005-2024



Helburua

TRANSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN LEGEA 2030:

% 32


EAEko urak hobetzen ari dira, baina ibaiak eta estuarioak dira ingurumen-erronka handiena

2015 eta 2024 artean, EAEko azaleko ur masen egoera globalak bilakaera positiboa izan du, nahiz eta presio handieneko sistemetan erritmo eskasean egon. Egoera onean dauden masen ehunekoa (ekologikoa eta kimikoa) 2015ean % 44 izatetik 2024an % 53 izatera igaro da, estatuko balioen ildotik eta Europako batez bestekoaren gainetik.

Egoera bereziki positiboa da kostaldeko uretan (% 100 egoera onean) eta urtegiatan (% 92), eta trantsizio uren (estuarioak) hobekuntza nabarmentzen da, 2015ean % 28,6 baitziren egoera onean, eta 2024an % 57,1.

Gainazaleko ur-masa gehienak biltzen dituzten ibaietan, egoera globalak egonkortasuna erakusten du azken urteetan. Dena den, itxurazko aurrerapen falta hori zuhurtziaz interpretatu behar da. Kalitate fisiko-kimikoa hobetu egin da saneamendu eta arazketa jardueri esker, baina berreskuratze ekologiko osoa motelagoa da. Gainera, egoera globala Uraren Esparru Zuzentarauaren irizpidea aplikatuz zehazten da: “bat kanpora, denak kanpora”: nahikoa da adierazle bat estandarrera ez iristea masa egoera onekotzat ez jotzeko. Ikuspegi horrek, arau zorrotza izanagatik ere, hobekuntza partzial esanguratsuak ezkuta ditzake.


Lurrazaleko ur-masen egoera 2015-2024



Euskadiko lurpeko 36 ur-masen egoera egonkorra eta gehienbat aldekoa da, eta masen % 89k ingurumen-helburuak betetzen dituzte (ehunekoa Europakoa baino pixka bat

handiagoa da). ‘Ona baino eskasagoak’ diren kasu puntualak baino ez dira erregistratu, eta horrek egoera global egokia erakusten du.

Lurpeko ur-masen egoera 2015-2024




Airearen kalitateak joera positiboa indartu du oro har, baina tokian tokiko ekintzak beharrezkoak dira oraindik ere

2024an, egunen % 94k airearen kalitate ona edo oso ona erregistratu zuten Euskadin, 2023an baino ehuneko hiru puntu gehiago. Kalitate eskaseko gertakariak gutxiengoa izaten jarraitzen dute, eta murrizten jarraitzen dute aurreko ekitaldiekin alderatuta. Kutsatzaile atmosferiko nagusien

kontzentrazioak, besteak beste, NO₂ eta partikula esekiak, maila baxuetan eta Europako araudiak ezarritako muga-balioen azpitik mantentzen dira. Bilakaera horrek hobekuntza iraunkorreko ibilbidea berresten du, eta Euskadi aldeko posizioan kokatzen du indarrean dauden airearen kalitate-estandarrei dagokienez.


Airearen kalitatearen indizea 2014-2024



PM10 partikulek eragindako kutsaduraren eraginpean dagoen hiri-biztanleria nabarmen murriztu da 2012tik, urteko batez besteko kontzentrazioen jaitsiera jarraituaren ildotik. 2024an, PM10en batez besteko kontzentrazioa 14,1 µg/m³ izan zen, 2012an baino % 33 gutxiago, eta Europako araudiak ezarritako muga balioaren azpitik nabarmen. Hobekuntza

hori trafikotik eta industria-jardueratik datozen partikulen emisioak murriztearekin lotuta dago, baita gertakari naturalak kontrolatzeko eta kudeatzeko neurriak aplikatzearekin ere, hala nola Saharako intrusioak, airearen kalitatearen ebaluazioan egiten duten ekarpena deskontatzea ahalbidetzen dutenak.

Airearen kutsaduraren eraginpean dauden hiriko biztanleen indizea 2012-2024




Lurzorua berreskuratzekeo hamarkada bateko ahaleginek 1.600 hektarea baino gehiagoko lur birsortua lortu dute

2024an, erabilera berrietarako berreskuratutako lurzoru potentzialki kutsatuen azalera 1.639 hektareara iritsi zen, azken urteetan ikusitako joera positiboari eutsiz.

Aurrerapen hori lurzoruaren kalitatea prebenitzeko, ikertzeko eta berreskuratzekeo politikak etengabe bultzatzearen emaitza da, 2030eko Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategiaren barruan.

Kokaleku horiek berreskuratzeak aukera ematen du hirigintza- eta industria-merkatura segurtasunez itzultzeko, eskuragarri dagoen lurzoruaren eskasiari erantzuten lagunduz eta lurzoru natural berriaren okupazioaren aurretik jada antropizatuta dauden lurzoruen berrerabilera lehenetsiz.


Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako leheneratu diren lurzoruen azalera 2010-2024



2024an, Euskadiko lurzoruaren artifizializazio tasa ia ez da aldatu, eta % 6,83ra iritsi da, 2023an baino bi ehunen gehiago baino ez. Datu horrek baieztatzen du aurreko hamarkadaren erdialdean hasitako lurraldearen okupazio-erritmoa egonkortu egin dela, 2010. eta 2016. urteen artean izandako azken hazkunde nabarmenaren ondoren (% 6,57 eta

% 6,8, hurrenez hurren). Ikuspegi konparatuan, Euskadi nabarmentzen da EB-27ko batez bestekoa (% 1,81) baino artifizializazio askoz handiagoa duelako. Hala ere, maila hori koherentea da biztanleria dentsitate handiko eskualdeekin (hala nola Herbehereak eta Belgika).

Lurzoruaren artifizializazioaren bilakaera 2010-2024




Euskadik Natura 2000 Sareko 56 gune babestu ditu, azken hamarkadan nabarmen handitu ondoren

Europako Natura 2000 Sarea funtsezko apustua da Europako biodibertsitate-politikan. Sare hori, neurri handi batean, Europako lurreko eta ibaietako habitatetarako osatu da, eta nahitaez bete beharreko araudi eta neurri batzuk dituzte lotuta.

Euskadik Natura 2000 Sareko 56 gune babestu ditu. 2024an, Jaizkibel-Capbreton itsas eremua GKL ESZZ12005 sartu da, itsas eremuan sarea zabaltzeko. Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL) denez, etorkizunean Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) izendatu aurretik izendatu zen.

Ereku babestuen kopuruaren bilakaera 2012-2024




* 2024an, ESZZ12005 GKLa (Jaizkibel-Capbreton itsas eremua) sartu zen, Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) izendatzeko zain, eta 2023ko abenduaren 30eko BOEn argitaratu zen, TED/1416/2023 Aginduaren bidez.

2030erako Biodibertsitate Estrategiaren esparruan, negualdia igarotzen duten uretako hegaztiak hezeguneen eta Natura 2000 Sareko espazioen egoera ekologikoaren adierazle dira. 2012 eta 2024 artean bilakaera gorabeheratsua izan dute, 2020an beherakada

eta 2023ra arteko susperraldia, eta, ondoren, jaitsiera txiki bat 2024an. Dinamika berria batez ere barnealdeko hegaztiak bultzatzen dute, eta kostaldekoek, berriz, egonkortasun handiagoa dute.

Uretako hegazti negutarren indizearen bilakaera 2012-2024




Euskadik bere eraginkortasuna hobetzen jarraitzen du materialen erabileran, Europako batez bestekoaren gaineratik

Sektore industrial garrantzitsuetan (hala nola metalurgian, makinerian, material aurreratuetan eta kimika berdean) ekoizpen-eraginkortasuna handitu izana —Euskadiko 2024ko Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa bezalako mekanismoei esker— ekonomia zirkularren adierazleetan islatzen da.

Zentzu horretan, Materialen Etxeko Kontsumoak¹ beheranzko joera erakusten du, 2020an erregistratutako minimora hurbilduz, eta horrek materialen kontsumoaren efizientzia iradokitzen du, jarduera ekonomikoaren eta materialen erabileraren arteko desakoplamenduan lagunduz.


Materialen etxeko kontsumoa, biztanleko, 2005-2023



Produktibitate materialaren indizea, kontsumitutako materialen unitate bakoitzeko zenbat balio ekonomiko sortzen den neurtzen duena, ia bikoiztu egiten da Euskadin

2005etik, eta horrek esan nahi du gaur egun aberastasunaren bikoitza sortzen dela orduko material kopuru berarekin, industria sektoreetan efizientzia handiagoa islatuz.

Produktibitate materialaren indizea 2005-2023




¹ 2023ko datuek zenbatespenak jasotzen dituzte, txostena egiteko unean ez baita behin betiko informazioirik izan.

Hondakin gutxiago zabortegira, baina 2030eko helburuak isurketaren murrizketa bizkortzea eskatzen du

Euskadiko hiri-hondakinen sorrera egonkor samar mantendu da 2003tik, % 3 inguruko murrizketa metatuarekin, aldiko hasierako balioekin alderatuta. 2024an,

Euskadin 1.116.000 tona hiri hondakin inguru sortu ziren, eta horietatik etxe hondakinak % 84 inguru izan ziren.

Biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinak 2003-2024




Helburua
 HONDAKINAK
 PREBENITZEKO ETA
 KUDEATZEKO PLANA **2030**:
Sortutako hiri-hondakinak 419 kg/bizt./urteko kopurura murriztea

2018tik hona, zabortegietan amaitzen duten hondakinak % 45 murriztu dira. 2025ean, isurketa-kopurua aurreko urtearekiko apur bat igo bada ere, Euskadiko 2030eko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren helburuaren ildotik jarraitzen du; plan horrek zabortegietara bideratutako hondakinak % 15etik behera jaistea ezartzen du. 2018arekiko isurketak murrizteko

joera hori hondakinak balioztatze eta ekoizpen-zikloan berriro sartzeko azken urteetan zabaldutako neurri eta inbertsioen multzoan kokatzen da. 2021 eta 2025 artean, 31 milioi euro baino gehiago mobilizatu dira ekonomia zirkularreko, prebentzioko eta hondakinen kudeaketa aurreratuko proiektuei laguntzeko, bai enpresa-eremuan, bai administrazio publikoetan.

Zabortegian amaitzen diren hondakinak, 2018ko datuekin alderatuta (%)



Helburua
 HONDAKINAK
 PREBENITZEKO ETA
 KUDEATZEKO PLANA **2030**:
zabortegira iristen diren hondakinak % 85 murriztea




Ingurumen-zergek goia jo dute plastikozko ontziei eta isurketei zerga berriak ezarri ondoren

2022tik 2024ra hazkunde ekonomikoaren eta BEG emisioen arteko desakoplamendua finkatu da Euskadin. Aldi horretan, BPGa % 4,9 igo da, eta guztizko emisioak % 15,1 murriztu dira eta emisioen intentsitatea % 18,3 jaitsi da. 2023an, BPGaren hazkundera (+ % 2,5) bat dator

emisioen murrizketa handiarekin (-% 12,3), eta 2024an joera horri eutsi zaio, hazkundera ekonomiko berriarekin (+% 2,4) eta emisioen murrizketa gehigarriarekin (-% 3,1), betiere presio klimatiko txikiagoarekin bateragarria den ibilbidea indartuz.


BPGaren eta berotegi-efektuko gasen bilakaera 2005-2024



Euskadiko ingurumen zergak 1.398,1 milioi eurokoak izan ziren 2023an, zerga guztien % 7,3 eta BPGaren % 1,5, eta EB-27ko batez bestekoaren azpitik mantendu ziren (BPGaren % 2). Bilakaerari dagokionez, ingurumen bilketak pandemia aurreko maila maximoa (2019) berreskuratu eta pixka bat gainditu du. Egiturak oso kontzentratuta jarraitzen du energiaren gaineko zergetan.

Nabarmentzekoa da kutsaduraren eta baliabideen gaineko zergen ondoriozko diru sarreraren igoera, 13,8 M €-tik (2022) 48,4 M €-ra (2023) igaro baitira, batez ere bi zerga berri sartu direlako: plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga (26 M €) eta hondakinak zabortegian biltegitratzearen gaineko zerga (11 M €).

Ingurumen-zergak 2014-2023




Herritarrek aldaketarako duten prestasuna handitu da, eta kezka klimatikoak, berriz, beheranzko joera du

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen azken azterketak erakusten duenez, 2025ean, herritarrek ingurumena gehiago errespetatzeko ohiturak aldatzeko duten jarrera altua da oraindik. % 51 prest egongo litzateke edozein kasutan, eta % 34

ahalegin handirik eskatzen ez badu; aldatzeko prest ez dauden ehunekoak, berriz, txikia izaten jarraitzen du (% 14). Oro har, emaitzek berresten dute jarrera gehienbat aldaketaren aldekoa dela, eta aurreko urteekiko baldintzarik gabeko jarrera apur bat indartu dela.


Herritarrek ohiturak aldatzeko duten jarrera, ingurumena gehiago errespetatzeko. Ohiturak aldatzeko prestasunari buruz 2025ean egindako inkestaren erantzunen ehunekoa



2025eko abenduan argitaratutako azterketan, ongizate pertsonalaren pertzepzioari buruzkoan, herritarrei klima-aldaketarekiko duten kezka-mailaren gainean galdetu zaie. Klima-aldaketarekiko kezka-mailak beherakada

txiki bat izan du 2017tik. 2025ean, *gutxi kezkatuta* dauden herritarrak % 24ra iritsi dira; *oso kezkatuta* daudenak, berriz, 3 puntu jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta.

Herritarrek klima-aldaketari buruz duten kezka-maila. "Ongizate pertsonalari buruzko pertzepzioari" buruz 2025ean egindako inkestaren erantzunen ehunekoa



KLIMA ALDAKETA

Euskadik emisioak murrizteko ibilbidea du, Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Legeak 2030erako ezarritako helburuarekin bateragarria. 2005 eta 2024 artean, BEG emisioak % 38 jaitsi dira, eta % 45eko helburura hurbildu dira.

URA

Ur-masen egoeraren bilakaerak joera positiboari eutsi dio, nahiz eta presio handieneko sistemetan aurrerapen mugatua egon. Lurpeko urek oso egoera onean jarraitzen dute, eta ibaiek, multzoan duten pisuagatik eta, neurri txikiagoan, estuarioengatik, ingurumen-helburuak erabat lortzeko erronka nagusiak biltzen jarraitzen dute.

AIREA

Airearen kalitateak joera positiboa sendotu du azken hamarkadan. 2024an, egunen % 94k kalitate ona edo oso ona izan zuten, 2023an baino ehuneko hiru puntu gehiago, emisioak murrizteko politiken inpaktu metatua islatuz.

LURZORUAK

Lurzoru kutsatuak berreskuratzea aurreikusitako helburuen aurretik doa, lurraldearen erabilera-eredu eraginkorragoa indartuz. Berreskuratutako lurzoruaren bolumenak jada antropizatuta dauden espazioen berrerabilera sendotzen du, lurzoru natural berriaren okupazioaren aurrean.

BIODIBERTSITATEA

Euskadik Natura 2000 Sareko 56 gune babestu ditu. 2024an Jaizkibel-Capbreton itsas eremua sartu da, itsas eremuan sarea zabaltzen duena. Hala ere, kostaldeko hegaztien gainbeherak agerian uzten du biodibertsitatea indartu behar dela politika sektorialetan.

EKONOMIA ZIRKULARRA

Materialen erabileraren eraginkortasunak hobera egiten jarraitzen du Euskadin, eta Europako batez bestekoaren gainetik mantentzen da. Hori islatzen da Materialen Etxeko Kontsumoan biztanleko, beheranzko joerarekin, eta Produktibitate Materialaren Indizean, goranzko joerarekin, eta horrek erakusten du hazkunde ekonomikoaren eta baliabideen erabileraren arteko desakoplamendua.

HONDAKINAK

Isurketa murrizteko joera finkatu egin da, azken aldiko ingurumen-politikaren aurrerapen nagusietako bat baita. 2018tik, zabortegira bideratutako hondakinak % 45 murriztu dira, baina 2030eko helburua betetzeak hondakinen balorizazioa bizkortzea eskatzen du.

EKONOMIA ETA INGURUMENA

EAEko ekonomia hazten ari da, eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten. Desakoplamendua finkatu egin da, baina ingurumen-fiskalitatea Europako batez bestekoaren azpitik dago.

HERRITARRAK ETA INGURUMENA

Herritarrek ohitura jasangarriagoak hartzeko joera handia dute. Biztanle gehienek bizi kalitaterako ingurumenak duen garrantzia aitortzen jarraitzen dute, eta borroka klimatikoko neurrien alde agertzen dira. Hala ere, klima aldaketarekiko kezka beheranzko joera txiki bat erakusten du.



2025eko ingurumen koiunturaren gakoak

Aztertutako adierazleen baterako irakurketak aukera ematen du Euskadiko azken ingurumen-egoeraren ezaugarri diren **zeharkako mezu batzuk** identifikatzeko:

- **Lurraldearen ingurumen-hobekuntza aurrera doa bektore nagusietan finkatutako emaitzekin.**

Euskadiren 2025eko ingurumen koiunturak aurrerapen esanguratsuak erakusten ditu ingurumen bektore nagusietako batzuetan. Berotegi efektuko gasen emisioak murriztea, airearen kalitatea hobetzea, lurzoru kutsatuak berreskuratzea eta hondakinen isurketa jaiste mugari garrantzitsuak dira Euskadiren ingurumen jarduera hobetzeko.

- **Aurrerapenaren erritmoa desberdina da, eta erronka iraunkorrak ditu uretan eta biodibertsitatean.**

Adierazleen azterketa bateratuak agerian uzten du eraldaketa-prozesu desberdina dagoela, bilakaera ona baina motela duten eremuekin, hala nola azaleko ur-masen egoerarekin, eta zaugarritasun handiagoko dinamikek irauten duten beste batzuekin, hala nola hezeguneei eta kostaldeko eremuei lotutako uretako hegaztien bilakaerarekin. Joera horiek babes sektorialetik haratago doazen ikuspegi integratuak indartzeko beharra azpimarratzen dute.

- **Hazkunde ekonomikoaren eta ingurumen-presioaren arteko desakoplamendua industria-oinarri sendoko produkzio-eredu batean finkatzen da.**

Ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremanaren bilakaerak hazkunde ekonomikoaren eta ingurumen-presioaren arteko desakoplamendua berresten du, eta emaitza positibo horrek garapen-eredu jasangarriago baten bideragarritasuna indartzen du. Industriak emisioetan, energian eta baliabideetan duen pisuak, berritzeko eta arrastatzeko duen gaitasunarekin batera, klima eta energia helburuak betetzeko faktore erabakigarri bihurtzen du industria eraldatzea.

- **Ibilbide klimatikoa bat dator 2030eko helburuekin, baina hurrengo faseak eraldaketa eskalatzea eskatzen du.**

Klimari eta energiari dagokienez, Euskadik ibilbide bateragarria du 2030eko helburuekin, baina 2050erako neutraltasun klimatikoaren eskakizunek beharrezkoa egiten dute datozen urteetan ahaleginak mantentzea eta areagotzea, batez ere deskarbonizazio zailtasun handienak dituzten sektoreetan.

- **Herritarrak eta enpresa-sarea ingurumenarekin konprometituta daude.**

Oraintsuko koiunturak agerian uzten du herritarrek eta enpresa-sareak garrantzi handia dutela ingurumen-trantsizioan. Ohiturak aldatzeko jarrera handia izatea eta enpresek gero eta konpromiso handiagoa hartzea oinarri sendoak dira aurrera egiteko, baina klima-aldaketaren pertzepzio sozialaren bilakaerak ohartarazten du beharrezkoa dela asmo handiko komunikazio eta ekintza publiko koherenteari eustea.

- **Jasangarritasuna, efizientzia eta erresilientzia Euskadin industria lehiakortasunaren bektore emergente gisa sendotzen dira.**

Portaera horren arabera, industria-sarea pixkanaka heltzen ari da, eta baliabideen erabileraren eraginkortasuna, inpaktuen murrizketa eta ingurumen-jardunaren hobekuntza lehiakortasun-faktore gisa ikusten dira gero eta gehiago, eta ez soilik arau-betebehar gisa.



Adierazleen laburpena

| Adierazlea | | 2015 | Azken datua |
|--|--|--|---|
| Berotegi Eftukoko Gasen guztizko emisioen indizea (oinarria 2005) | | 76 BEGen guztizko emisioen indizea | 62 BEGen guztizko emisioen indizea 2024 |
| Azaleko ur-masak egoera onean | | % 44 ur-masak egoera onean | % 53 ur-masak egoera onean 2024 |
| Airearen kalitatearen indizea | | % 83 kalitate oneko edo oso oneko egunak | % 94 kalitate oneko edo oso oneko egunak 2024 |
| Kutsatuta egon zitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzorua (2010etik) | | 944 Ha berreskuratu dira | 1.639 Ha berreskuratu dira 2024 |
| Babestutako eremuen kopurua | | 42 eremu babestu | 56 eremu babestu 2018 |
| Materialen etxeko kontsumoa biztanleko | | 11 tona biztanleko | 10,5 tona biztanleko 2023 |
| Zabortegetan amaitzen duten hondakinak | | 2.573.000t isurpen dato 2018 | 1.408.338t isurpen 2025 |
| Ingurumen zergak | | 1.112.676 mila euro | 1.398.090 mila euro 2023 |



INGURUMEN KOIUNTURA EUSKADI 2025



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD